



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jende guztia zure bila dabil”

2024ko otsailaren 4a  
Urteko 5. igandea (B)

### Marko 1, 29-39

Jesus sinagogatik atera eta Simon eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiago eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrez; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi egin zuen. Sukarrak alde egin zion eta zerbitzatzen hasi zitzaien.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkieten Jesusi. Herri osoa bildu zitzaion atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zituen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota ere bai. Deabrupei ez zien hitzik egiten uzten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, oraindik ilun zegoela, Jesus herritik irten eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak haren bila hasi ziren; aurkitzean, esan zioten: -Jende guztia zure bila dabil.

Hark, ordea, erantzun: -Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere berriona hots egitera, horretarako atera bainaiz.

Eta Galilea guztian barrena ibili zen, hango sinagogetan berriona hots egiten eta deabruak botatzen.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkieten Jesusi. Herri osoa bildu zitzaion atarian.

## BAKARDADERA OTOITZ EGITEKO

Jose Antonio Pagola

Profeta ibiltari bezala ari zuen jarduera bizian, beti arduratu zen Jesus Jainkoarekin harremanak isiltasunean eta bakardadean izateaz. Zirrara sakona eragin zuen Jesusen ohitura baten oroitzapena gorde digute ebanjelioek: gaez bakardadera joan ohi zen Jesus otoitz egiteko.

Markosek dakarren pasarteak Jesusentzat otoitza der zen ulertzen laguntzen digu. Bezperan lan gogorra izan zuen. «**Gaixo asko sendatu zituen**» Jesusek. Handia izan zen arrakasta. Txunditurik zegoen Kafarnaum: «**Herri guztiak inguratu zuen**» Jesus. Hartaz mintzo ziren denak.

Gau horretan berean, goizaldera, goizeko hirurak eta seiak bitartean, jaiki eta, ikasleei esan gabe, eremura joan zen Jesus. «**Otoitz egiten hasi zen han**». Aitarekin egon beharra sentitu zuen. Ez du nahi arrakastaren haizeak burua nahas diezaion. Aitaren nahia nahi du soil-soilik: egin beharra duen bidea ondo ezagutu.

Hura beren artean ez izateaz harriturik, Simon eta lagunak haren bila joan ziren. Ez zaie inporta hark Jainkoarekin ari duen solasa etetea. Berekin eutsi nahi diote: «**Mundu guztia zure bila dabil**». Baina Jesusek ez du uzten kanpotik programa dezaten. Bere Aitaren egitasmoa bakarrik du gogoan. Ez du ezerk, ez inork apartaraziko bere bidetik.

Ez du gogorik bere arrakastaz gozatzen, Kafarnaumen gelditzeko. Ez du amore emango herri gogoberoaren aurrean. Bada artean Jainkoaren Berri Ona entzun ez duen herrixkarik: «**Goazen... haietan ere hots egitera**».

Gaur egungo kristautasunean hau da alderdirik baikorrenetako bat: Jainkoarekiko komunikazioa, isiltasuna eta gogoeta egin beharra esnatzen ari izatea. Kristaurik argienek eta arduratsuenek era kontenplaziozkoagoan bizitzera eraman nahi dute Eliza.

Premia estukoa da hori. Kristauok, oro har, ez dakigu Aitarekin bakarrik egoten. Teologoak, predikariak eta katekistak asko mintzo gara Jainkoaz, baina gutxi mintzo gara harekin. Jesusen etsenplua aspaldi ahaztua da. Parrokietan lan-bilera asko egiten da, baina ez dakigu bakardadera jotzen, Jainkoaren aurrean atsedean hartu eta geure burua bakeaz betetzeko.

Gero eta gutxiago gara gauza gehiago egiteko. Hor dago arriskua: jardunkerian, higaduran eta barnehustasunean erortzeko. Halere, arazoa ez datza arazo asko izatean, baizik haiei aurre egin ahal izateko espiritu-indarra izatean.